

— Aurtxoak yayota seyaskatxoan  
negar-zotin dagi  
aman ondoan.

Lastan bat emonaz amak diñotxo :  
Zer izango az i,  
ene kutuntxo ?

Izango ete az osasuntsua  
ala erkiña ta  
gaxo-gaxoa ?

Oso aberats eta jakintsua ?  
Ala ezyakin ta  
txiro-txiroa ?

Noiz arte bizirik iraungo dok ik  
erauntzun egidak  
Zerbait ba'dakik.

— Esango neuskizu, ezer ba'neki

---

« *Ilgo naz* » besterik  
iñok aldaki ?

— Oyan itzaltsuan bidekatuta  
nekearen-nekez gustiz aulduta  
bidezta dabil,  
ikaraz ta zurbil  
artegabetua ;

non dan be eztakian gizon gaxoa.

.....

Kistar zintzoa, ba'dozu ikusi  
udabarriko goxetan,  
margo ederdun lora usaintsua  
biribil aran-ertzetan,  
eguzkiaren izpi samurra  
ikusiaz beste barik  
bere orritxo legun-bigunak  
ipinten zabal-zabalik ?

Eta arratsean ez dozu ikusi  
loraxo guri samurra,  
biribilduaz, eguzkiari  
bialtzen esker-agurra  
beroak iges egin eztayon  
orri guriak estutzen,  
ta goitik yausten dan iñontz otza  
bildurge bere gain artzen ?

Aur txikitxo ta polita  
yayo yaku Bethlem'en  
goazen pozez ikustera  
goazen danok len-bai-len.

Abeletxe baster baten  
Miren ta Yoseba'gaz,  
abere bi berótzeko  
dauz arnasa lurrunaz.

Ene eder oi ; etzara zu  
donoki-lurren' yabe ?  
Zelan zagoz kutun ori  
iñon laguntza gabe ?

Zeuk ez dozu piztu goyan  
eder-eder euzkia ?  
Zer dagi bere Yauna'ri  
bialtzeko argia ?

Egaztiak zeuk eztozuz  
apain yantzi ederrez ?  
Eztozuz aran, muñoak  
yauntzi lora, bedarrez ?

Zer da bertan dakusguna ?  
Aurtxo samur polita,  
ótzeg dar-dar aska baten  
eztauko zer yantzi ta.

Txoritxuak lo zagoze,  
lo zagoze gaxuok ?  
Orain abestezpuzue  
itxi betiko abuok.  
— Txoritxuok ixil gagoz ;  
ez dogu abestuten ;  
Ez dantzuzuz ba gotzonak  
Yaun-Aurtxoa goratzen :

« Aintza ta aintza Donokian  
Yaungoiko Altsuari  
gentza zoruna ludian  
gogo zintzodunari ? »

Eguzkiak iges dagi  
Yosu yago dalako ;  
*Argia* dagon tokian  
eguzkia zertako ?  
Yantzi barik dar-dar dago  
Yosu oiz ikaragaz ;  
Nai daulako berotzea  
geure maitetasunaz.